BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5779

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 26koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 439/1999 Dekretuaren eremuan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetako erretiro aurreratuetarako laguntzei buruzko programa gauzatzeko 2012ko ekitaldiko diru-kopurua zer egunetan agortu den jakinarazteko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 439/1999 Dekretuak ordainketa eskuordetuaren menpekoak diren langileei lanaldi partzialeko lan-kontratuak egiteko itunpeko ikastetxe pribatuei eman beharreko diru-laguntzak arautzen ditu.

Dekretu horren 4. artikuluak dioenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, publizitate printzipioa betetze aldera, dekretu horretan aurreikusitako laguntzen berri emango du urtero, eta aurrekontu-dotazioaren zenbatekoa adierazi beharko du

Era berean, eta dekretu horren 13.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, 2012kok ekitaldirako aurreikusitako dekretua agortu dela jakinarazten da.

Ordainketa eskuordetuaren menpekoak diren langileei lanaldi partzialeko lan-kontratuak egiteko itunpeko ikastetxe pribatuetarako 2012ko aurrekontu-ekitaldirako funtsak agortu direnez, ez da inolako deialdirik egin behar.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinaraztea 2012ko azaroaren 26an agortu dela ordainketa eskuordetuaren menpekoak diren langileei lanaldi partzialeko lan-kontratuak egiteko itunpeko ikastetxe pribatuei laguntzak emateko 2012ko ekitaldiko aurrekontu-kreditua. Laguntza horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren abenduaren 21eko 439/1999 Dekretuan aurreikusita daude.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 26a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.